


Karlota printzesa arrosa izateaz asperturik dago.  
Berak ez ditu zapoak musukatu nahi  
printze urdin bihurtzen ote diren ikusteko.

Karlotak ez du ulertzen zergatik ez dagoen  
dragoiekin jolasten duen printzesarik,  
itsasoak zeharkatzen dituenik edota mundu  
osoan zehar globoz bidaiatzen abentura  
ahaztezinak bizitzen dituenik.

**BERDINTASUNEAN ERREFERENTE DEN  
LIBURU BATEN 15. URTEURRENA.**

Egile berearena:



# Ba al dago PRINTZESA ARROSA izatea baino gauza ASPERGARRIAGORIK?



Raquel Díaz Reguera

Ba al dago printzesa arrosa izatea baino gauza aspergariagorik?

Raquel Díaz Reguera



*Nire amari,  
bere ipuinetan bizi diren  
printzesa urdin, elefante hegaldun  
katu hiztun eta ezinezko bidaia guztiengatik.*

*Eskerrak Pablo, Violeta, Guille, Jimena, Elena eta Martinari,  
lurreko gatza eta nire irribarre guztien eguzki izpiak izateagatik.*

Ba al dago  
**PRINTZESA ARROSA**  
izatea baino gauza  
**ASPERGARRIAGORIK?**

Raquel Díaz Reguera

É

É G A L I T É

**Ba al dago printzesa arrosa izatea baino gauza aspergarriagorik?**

Egalité bilduma

© testuarena eta irudiena: Raquel Díaz Reguera, 2010/2017/2026

© argitalpenarena: NubeOcho, 2026

© itzulpenarena: Beñat Muxika, 2026

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *¿Hay algo más aburrido que ser una princesa rosa?*

Lehen argitalpena: Iraila, 2026

ISBN: 979-13-88132-95-7

Gordailu Legala: M-15896-2026

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.





Karlota printzesa **arrosa** da;  
bere soineko **arrosarekin**,  
arropa **arrosez** betetako armairuarekin  
eta ohe, izara eta buruko **arrosez**  
osatutako logela batekin.

Karlota **nazkatuta dago** arrosaz,  
eta galdera hau du:

“Ba al da printzesa arrosa bat izatea  
baino gauza **aspergarriagorik?**”.



Printzesa arrosak hain dira **pinpirinak**,  
non loa galtzen duten koltxoi azpian  
**ezkutatutako** ilar txiki batengatik.

Alabaina, Karlota  
gai da seko lo geratzeko,  
**baita** elefante baten gainean **ere**.

Behin batez, printzesa arrosa bat ezagutu zuen,  
eguna urmaeleko **zapoak musukatzen**  
igarotzen zuena, zapoak **printze urdin**  
bihurtzen ote ziren ikusteko.

Baina Karlotak **ez du** printze urdinik **nahi**.



Zergatik ez dago  
**abentura bila** itsasoak  
zeharkatzen dituen printzesa arrosarik?  
  
Edota bere burua  
otso basatiaren **atzaparretatik**  
**libratzen** duen printzesa arrosa ausartik?



Edota unibertso **izarrei**  
izenak jarriko dizkien  
printzesa arrosa **astronomorik?**

Edota imajinaziozko **hirientzako**  
printzesa arrosa **arkitekturik?**





Karlotaren **ametsetan**  
**herensuge hegaldunak** daude,  
berarekin **jolastu** eta **abenturak**  
bizi dituzten lagunak.